



■ LITERATUR SOLASALDIA

'Operación Dulce' liburuaz ariko dira

Ian McEwan idazlearen *Operación Dulce* liburuaz ariko dira astelehenean. Jorge Carreirok zuzenduko du, gaztelaniaz, 19:30etan Liburutegian. ■

■ MUSIKA GIROA

Rocka larunbatean, Eira taldearekin

Musika Giroa izango da larunbatean. Musika Eskolatik sortutako Eira taldeak rock estiloko beretsioak eskainiko ditu 19:30etan aurrera Sagarrtxo plazan. ■

■ PRESO ETA IHESLARIK

Kontzentrazioa, etzi

Hilabeteko azken ostiralero bezala, kontzentrazioa deitu dute etzi, Preso eta iheslariak *Euskal Herrira* lemapean. 20:00etan izango da Joseba Barandiaran plazan. ■

■ AEK - ZILEGI ESKOLAK

Sexualitate tайлerra

Zilegi Eskoletan sexualitate tайлerra antolatu dute asteartean. Goizeko 09:30etan izango da, doan. Bitxigorría boutique erotikoaren eskuistik izango da. Izena eman behar da: zilegeskola@aeck.org edo 607 610 687. ■

■ UDALA

Plenoa,bihar

Plenoa izango da bihar 19:00etan udaletxeko areto nagusian. Europako haueskundeetako zozketa informatikoa ariko dira. ■

■ ATEZ ATEKOIA

Lapatxera, irteera

Azpeitiko Lapatx zabortegira irteera antolatu du Udalak, larunbatean. Izena atez ateko bulegoan eman behar da. Bihar da azken eguna. ■

■ AUZOKONPOSTA

Bilera, asteartean

Auzokonpostako hirugarren gunea zabalduko da maiatzean, Arrobitxulon. Bertan parte hartuko dutenek ikastaroa izango dute asteartean, 19:30etan, Arrobitxuloko lokalean. ■

■ SANTIAGOMENDIKO GEREZIAK BUSTIETA BASERRIA

«Oso preziatua zen hemengo gerezia eta diru iturri ona»

Garai batean, sekulako fama zuten Santiagomendiko gereziek. Orain, bakar batzuk mantentzen dira; Bustieta baserrikoak, besteak beste. Loretan direla aprobetxatuz, bertan izan da Kronika.

GAUR egun, ezagunak zaizkigu Jerteko, Itsasuko edota Milagroko gereziek. Eta Santiomendikoak? Garai batean, Santiomendi gereziondoz jo sia zegoen eta bertatik ateratzen zen gerezia oso preziatua zen inguruan. Diru iturri polita zen zenbait baserritarako. Urte sasoia honetan, Santiomendi zuriz jantzita egoten zela diote auzotarrek, gereziondoak loretan egoten baitziren. Orain, bakar batzuk ikusi daitezke; besteak beste, Bustieta baserrikoak. Aspalditik dauzkae gereziondoa.

Jose eta Mari Jose Mujika aita-alabak halaxe kontatu diote Kronikari: «Guk betidanik izan ditugu gereziek. Baserria generazioz generazio pasa da eta gereziondoak beti ezagutu izan ditugu hemen. Aitak eta aitonak ere bazituzten eta 300 urte izango dira», dio Josek.

Bretxara, saltzera

Bretxara eramatzen zituztela azaldu du Mari Josek: «Ni gogoratzen naizela, Kaxkarreko terrenoak gereziondoz betea izaten genuen. Xisterak beteta ibiltzen ginen eta Bretxara eramatzen genituen. Goizeko 06:00etan hartzten genuen autobusa hara joateko. Berdura ere eramatzen genuen orduan. Ni orain dela 40 bat urteko kontuez ari naiz, eta ordurako jaitsia zegoen. Garai batean izugarri pila izaten omen zen. Amak kontatzen zuen gereziek biltzeko garaia izaten zenean, eskola uzten zutela». «Garai hartan, gurdia-



Markel Zapiain, Mari Jose Mujika eta Aimar Mujika; izeba bi ilobekin. Atzean, gereziondoa loretan.

rekin jaisten zen eta gero tranbia hartzen zen Donostiarra. Eta tranbia kendu zutenean, autobusean. Lehen makina bat egun pasatzen genituen gereziek biltzen», gogoratzen du Josek.

Ez da errentagarria

Oso fruta preziatua zen orduan gerezia eta diru iturri ona zelako zeuden hainbeste gereziondo Santiomendin: «Fama

ederra zeukan Santiomen-diko gereziek. Bretxan oso ondo saltzen ziren. Pena da galdu izana», azaldu du Mari Josek. Gaur egun, ordea, ez dela errentagarria dio Josek: «Arriskutsua da biltzeko, eta horrez gain, hemengo gereziek hastearako, kanpokoekin nazkatua egoten da jendea».

Urtero, San Joaнетarako

Laster izango da gerezia biltzeko garaia. «Maiatzaren

azkenean, ekaina hasieran biltzen dira. San Joaнетarako izaten da beti gerezia», dio Mari Josek. Gerezia biltzeko garai motza izaten dela gaineratu du eta kolpera biltzen direla: «Eta importantea da kazkabarrik ez egitea bitarte horretan, bestela akabo».

Ginga beltza motakoak

Bustietako gereziek gozoak omen dira: «Orain asko galdu da eta aleak ere txikiagoak dira, baina gozoak dira hemengo gereziek». Josek dio eguzkia behar izaten dutela gereziek eta tarteka euria, gozoa ateratzeko. «Txertatu ere egin behar da, bestela ale txikia ematen du. Nik azkenak txertatuak orain dela 15 bat urtekoak izango dira. Orain ez ditut hainbeste zaintzen. Hauek jarraitu beharko dute», dio bilobengatik.

Hiru gerezi klase izaten zituzten lehen Bustietan: ginga beltza, ginga gorria eta anpolaria. Orain beltza bakarrik daukate. 20 bat arbol dauzkatela azaldu du Josek. Gaur egun etxerako eta ingurukoentzako biltzen dituzte. Kakoarekin biltzen dira gereziek. Eta oso altu daudenak, eskailerarekin.

Gutxi, baina mantendu

Gereziondo gehienak galdu egin badira ere, Santiomen-diko baserri askok oraindik bakar batzuk mantentzen dituztela azaldu dute: «Guardian, Goikoetxe, Iriarten... Denok mentendu ditugu bakar batzuk behintzat». ■

■ GURE ESKU DAGO

Taldea sortzeko bilera, gaur

Gure Esku Dago dinamikaren barruan taldea sortu nahi da. Bilera, 19:30etan kultur etxearen.

ERABAKITZEKO eskubidearen alde, Durango eta Iruñea elkartuko dituen giza-katean parte hartuko du Astigarragak

ere, eta taldea sortzeko deialdia egin dute gaur. Gure Esku Dago dinamikaren barruan, taldea sortu eta ondo-

rengi ekintzak zehaztea da asmoa.

Bilera kultur etxearen izango da arratsaldeko 19:30etan.

Herritar guztiei zuzendua da eta parte hartzeko dei egin dute. Ekainaren 8an egingo da giza-katea. ■

ISABEL

Janari denda

COVIRAN

→ Astigarragako
baratzako
produktuak ←

Tomas Alba 11, Astigarraga
943 55 23 67

TELEFONOAK

- **Taxiak:** 943 400 500 • **Udaltzaingoa:** 092 • **DYA:** 943 46 46 22 (Hernani)
- **Autobusak:** Areizaga - 943 45 27 08 • **Anbulatorioa:** 943 33 56 44
- **Egunez:** **Castilla** Urbieta 7, Hernani - 943 55 29 41
- **Gauzez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 1, Hernani - 943 33 60 77

FARMAZIAK

Argitaratzailea



Laguntzaileak



EGURALDIA



GAUR Goizean eguraldi atsegina izango da. Egueditik aurrera, ordea, okertzeria egingo du. Ipar-mendebaldeko haizearekin fronte bat iritsiko da. Min.10° / Max.17°.



BIHAR Lainoak ugari zeruan, eta zaparradak botako ditu; batez ere, arratsaldean. Trumoi-ekaitza ere lehertu liteke. Min.9° / Max.16°. (euskalmet)

■ ASTE SANTUKO OPORRALDIA

Astigarraga leku aproposa: Donostia eskura eta prezio merkeagoak

Astigarragako ostatu, aterpetxe eta nekazalturismoak gustora daude jai egun hauetan izan den mugimenduarekin.

ASTE Santuko oporraldian, ohitura den bezala, astigaratar ugari joan da egun bat edo beste pasatzera herrikietan kanpo. Eta beste asko izan dira Astigarragara etorri direnak. Izan ere, ostatu hartzeko aukera ederra dago herrian: Astigarraga eta Beizama ostattuak, Artola, Kaxkarre eta Arraspiñe nekazalturismoak, eta Santiago mendia aterpetxe. Orokorean, oso pozik agertu dira ostatuetako ardurdunak, turista dexente ibili baita egun hauetan.

Almazenean lo egiteko prest

Astigarraga ostattua, ostegun, ostiral eta larunbatean beteta egon dela azaldu du Kike Perezek. «Tokirik ez zegoela eta, almazenean lo egiteko eskatuz ere ibili da jendea. Oso pozik gaude. Batez ere, jai egunetan izan da mugimendua. Aste honetan jende gutxiago dabil eta eguraldi txarra zetorrela eta, jendeak lehenago egin zuen martxa. Baino asteberuari begira, mugimendua dugu berriz». Zortzi apartamentu eta zortzi gela dituzte. Batez ere jendea, estatu mailakoa izan dutela azaldu du Perezek: Katalunia, Madril, Euskal Herrikoak... Frantziakoak ere ibili omen dira. Eta jendea prezio eta kalitateengatik gerturatzen dela gainearatu du: «Donostiatik gertu dago Astigarraga eta Donostia baino merkeagoa da».

Autobusak goiz bukatu

Beizaman ere pozik daude Aste Santuko oporraldiarenkin. Hala azaldu du Luis Olaizolak: «Zazpi gela ditugu eta %90-95ean izan dugu betea egun hauetan». Kasu honetan ere, estatu mailako turistak ibili dira, baina Katalunia eta Madrilez gain, Valentzia eta Galiziakoak ere bai. Batez ere, familiak izan omen dira, bikoteak seme-alabekin. «Donostia ezagutu



Astigarragako irudia Santiomenditik.

Donostia eta kosta ezagutzera etortzen dira. Eta ondo jateko asmotan, pintxoak probatzera, sagardotegiak...

tzeko asmoz etortzen dira gehienak, eta Astigarraga aukeratzen dute merkeagoa delako eta baita lasaiagoa ere. Prezioaz gain, hirugunean egon beharrean, herri txiki batean egon nahi dutenak dira asko. Hori bai, batzuk aipatu didate pena dela jatetxeak herrian hain azkar ixtea eta Donostiatik bueltatzeko autobusak hain goiz bukatzea», azaldu du Olaizolak.

Kosta ezagutu eta ondo jan Artolan bost gela dauzkate eta aurreko astean denak beteta egon dira. Pazko astean, berriz, jende gutxiago dabilela azaldu du Edurne Berrak. Spainiar eta Frantziar estatuko turistak ibiltzeaz gain, korearrak ere

izan dira Artolan. Normalean, turistak, aurrez ondo pentsatutako planekin etortzen direla azaldu du Berrak: «Donostia eta kosta ezagutzera etortzen dira. Eta ondo jateko asmotan, normalean. Pintxoak probatzera, sagardotegiak... asko, harrituta geratzen dira txuletekin. Baino denetik dago, beste batzuk otordu ia denak beraiek prestatzen dituzte gutxiago gastatzeko. Alde horretatik, nabaritu dut auren egonaldi motzagoak egin direla orokorean; bispahiru egunekoak».

Pazko astean, umeak Santiagomendiko aterpetxea erromesen atsedenleku izan da, azken urteetan bezala. Harkaitz Zubizarretak azaldu duenez, bataz beste, 3-4 erromesek hartu dute ostatu egunero. «Bakarka, bikoteka edo talde txikitak ibiltzen dira normalean», dio. Orain berriz, Pazko astean, aisialdi talde batek hartu du aterpetxea; Iruzun Eskaut Taldeak, hain zuzen. Bertan, ekintza desberdinak eginez, astea pasatzen ari dira 15-20 haur. //

■ SASKIBALOIA - SENIOR NESKAK

Eskoriatzaren aurka, etxearen

Partidua ostiralean izango da 19:30etan.

MUNDARRO La Salle Final Fourra jokatzeko sailkatu da dagoeneko eta ostiralean jokatuko du fase honetako azken partidua. Astigartarrak bigarren postuan dira eta lidertza lortzeko aukera dute.

Etxean, kirolegian jokatuko dute Eskoriatzaren aurka, 19:30etan. Aurreneko lau postuetan geratzen direnek jokatuko dute Final Fourra eta irabazten duen taldea mailaz igoko da; liga nazionalera. //

■ UDALA

Lorezaintza eta kale garbiketa zerbitzuak, lehiaketan

Interesatuek maiatzaren 12ra arte dute aurkeztekoko aukera. Udalak dio, murrizketa aurreko kalitatea berreskuratu nahi dela.

LOREZAINZA eta kale garbiketa zerbitzuak lehiaketak konbokatu ditu Udalak. Maiatzaren 12ra arte dago aurkeztekoko aukera. Informazio guztia eta bete beharreko baldintza eta pleguak: www.astigarraga.net edo udaletxeen.

Lehiaketa berria ezin zela gehiago atzeratu azpimarratu du Gobernu Taldeak:

«Aurreko legealdietan, zerbitzu hauek murrizketak jasan zitzuten, zerbitzuaren kalitatea kaxkartuz eta herritar askoren kexak areagotuz. Horrez gain, Astigarraga haunditu izanak ere eragina izan du. Beraz, ezin zen lehiaketa gehiago atzeratu». Murrizketa aurreko kalitatea berreskuratzea planteatzen du Gobernu Taldeak, herriaren tamaina berria kontuan izanda. Lorezaintzaren zerbitzu kostua 132.000 eurotan estimatzen du eta kale garbiketarena 225.000 eurotan.

ralak bermatzeko. Aurkeztu nahi diren enpresei eskatu zaie, euren langileei indarrean egon den azken hitzarmen kolektiboa aplikatu behar zaiela. Horrez gain, lorezaintza eta kale garbiketan, subrogazioa eskatu da, gaur egun dauden langileak mantentzeko». Euskera irizpideak ere sartu direla gaineratu dute.

«Kostua, atez atekoarekin nahastu nahi izan da»

Gobernu Taldeak salatu du zerbitzu hauen kostua atez atekoarekin nahastu nahi izan dela: «Sistema berriaren ondorioz kostua areagotu dela esan da, baina kostua haunditu da zerbitzu optimoa eman nahi delako eta batez ere, herriaren azalera haunditu delako. Oposizioko kieek atez atekoarekin obse-sioa dute eta gaia manipuluatu egiten dute. Batzordean bertan onartu zuten, esan zutena ez dela egia, baina hori publikoki ez zutela aitor-tuko. Dena dela, garrantzi-tsuna da, herritarrek zerbitzu maila hobea jasotzeko aukera izango dutela».

IRAGARKI MERKEAK

ARIK Terapia Zentroa. Udalekuak inglesa-euskerak Aste Santuan, ikastolara eman-ekarri zerbitza, adimen emozionala, yoga, psikomotrizitatea, masaia... Deitu: 943 50 66 72.